# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 3072

*AGINDUA, 2014ko ekainaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, irakasleen kidegoetan sartzeko edo kidego horietara heltzeko prozesuetako praktika-aldia egin behar duten pertsonei, eta irakasleen ordezkogaien zerrendako kideei dagokienez, ikasturte hasierako esleipen-prozesua arautzen duen Agindua aldatzen duena.*

Ikasturtearen hasierak planifikatzeko eta pertsonala kokatzeko prozesu batzuk egitea dakar eta ikasturte-hasierako esleipena da prozesu horien azken fasea. Esleipen horretan irakaskuntza-lanpostu libreak ondorengo pertsonei esleitzen zaizkie: behin-betiko destinorik ez duten edo beteko ez duten karrerako funtzionarioei, hautatze-prozesuetan hautatuta izan direnei eta ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendetan daudenei. Parte hartuko duten pertsonen zerrenda antolatu bat ezarri behar da eta, gainera, zerrenda horiek kudeatzeko orduan kontuan hartu beharreko argibide edo arauak finkatu behar dira derrigorrean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartu zuenak, arlo hau arautzen du ordezkogaiei begira eta horrela uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, 17.1 artikuluan xedatutakoa betetzen da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko apirilaren 18ko Aginduaren bidez aldaketa batzuk egin dira 2012ko abuztuaren 27ko Aginduan, zerrendak era eraginkor, bateratu eta operatiboagoan kudeatzeari begira eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman irakasleek urtero hainbat eta hainbat lanpostu bete behar izateak eskatzen dituen ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Agindu honen bidez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduaren 6., 20. eta 28. artikuluak eta III. eranskina aldatzen dira. Gainera, Hirugarren Xedapen Gehigarria eransten da.

Aldaketa horiek helburu hauek dituzte:

6. artikulua prozesuan parte hartzeko eskaerei buruzkoa da. Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak Bigarren Xedapen Gehigarrian zehazten duenez, ez dira Administrazioak Datuak Egiaztatzeko Zerbitzuaren bidez kontsulta ditzakeen datu eta agiriak aurkeztu behar prozesuan parte hartzeko eskatzen duten pertsonen identitatea egiaztatzeko. Horregatik, puntu honi buruzko beste paragrafo bat gehitu da.

20. artikuluak lanpostuetako espezialitateak sartzen diren talde generikoak, III. eranskinean zehazten direnak, azaltzen ditu. Atal horiek aldatu behar dira, ikasturtearen hasierako prozeduraren eremuan ordezkogaien zerrendetako kolektiboen egituraketan izandako aldaketak jasotzeko asmoz. Horrela 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak, aldatu ondoren, xedatutakoarekin bat etorriko da.

38. artikulua lanpostuen eragin eta izendatzeei buruzkoa da. Kasu honetan, bosgarren atala bestelako autonomia-erkidego batzuetan esleitzeko erreserba-aukerari buruzkoa da. Prozesuan parte hartu eta erreserba-aukera horretaz baliatu diren pertsonak zein egoeratan geratzen diren argitu behar da.

Azkenik, hirugarren xedapen gehigarria gehitzen da. Xedapen honek espresuki agertzen ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduaren bidez araututako esleipen-prozesuan parte hartzen duten pertsonen hizkuntza-eskubideak.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduaren «Eskabideak» izeneko 6. artikuluaren 1. atala aldatzen da. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«1.– Prozesuan, http://www.irakasle.net helbidean eskabide elektronikoa betez parte hartuko da. Identifikazioa erabiltzailea eta pasahitza erabiliz burutuko da, eta halakorik ezean, NANaren bidez alta eman beharko da. Sartzeko pasahitza ahaztuz gero, aipatu helbidean hori berreskuratzeko bidea aurki daiteke.

Eskatzailearen identitatea egiaztatzeko, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasotzen den Datuak Egiaztatzeko Zerbitzura joko da.

Aplikazioan lehen aldiz sartzean, eskabideari alta emango zaio, eta parte-hartzaile bakoitzak haren nortasun-datuak eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsulta ditzake.»

Bigarren artikulua.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduaren «Ezaugarriak» izeneko 20. artikuluaren 2. atala aldatzen da. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«2.– Eskubidea sortu duen lanpostuaren espezialitateari dagokion taldeko espezialitateetako lanpostuetarako soilik da finkatzeko eskubidea.

Prozedura horretarako, espezialitate bakoitza sei talde generiko hauetako baten barruan dago, III. eranskinean ezarritakoari jarraituz:

a) 1. taldea. Maisu-maistrak.

b) 2. taldea. Bigarren Hezkuntza.

c) 3. taldea. Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.

d) 4. taldea. Hizkuntza Eskola Ofizialak.

e) 6. taldea. Arteen irakaskuntza.

f) 7. taldea. Musika-irakaskuntza.»

Hirugarren artikulua.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduaren «Eraginak eta izendatzea» izeneko 38. artikuluaren 5. atala aldatzen da. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«5.– Bestelako autonomia-erkidegoetarako erreserba-aukera baliatu duten pertsonek prozesu honetan lanpostua lortzen badute, erreserba hori ondoriorik gabe geratuko da.

Lanposturik eskatu ez badute edo esleitu ez bazaie, aldi baterako bajan dauden izangaitzat joko dira, baja hori justifikatu beharko da, eta ikasturtearen hasierako esleipen-prozesua guztiz bukatu arte egongo dira egoera horretan, baita ekitaldi publikoetan parte hartzeko Agindu honen Bigarren Xedapen Gehigarrian agertzen diren deietan ere.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak bost eguneko epea zabalduko du irailaren lehen hamabostaldian. Epe horretan beste autonomia-erkidego batean izendapen-agiri bat aurkezten badute, orduan une horretatik aurrera justifikatuta egongo den aldi baterako bajan daudela interpretatuko da; bestetik, epe horretan aurkezten badute autonomia-erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria, unibertsitatez kanpoko irakasleen ordezkogaien zerrendetako kideak direla egiaztatzen duena, lan egiteko prest egoerara aldatuko dira ikasturte hasierako esleipen-prozesu osoa amaitzen denean.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea igaro ondoren eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, Langileak Kudeatzeko zuzendariak dagokion Ebazpena emango du, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duenak, horri buruz xedatutakoa betez.»

Laugarren artikulua.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduaren «Taldea, espezialitateak eta lanpostuaren beste ezaugarri batzuk antolatzea» izeneko III. Eranskina aldatzen da. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«III. ERANSKINA

TALDEA, ESPEZIALITATEAK ETA LANPOSTUAREN BESTE EZAUGARRI BATZUK ANTOLATZEA ESPEZIALITATEETAN SARTZEKO ZERRENDAK

1.– Taldeak eta espezialitateak.

1.1.– Maisu-maistrak.

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 1.º | 1 | 100 | 16 0954 Ingelesa | 16 0954 Ingelesa |
| 2.º | 1 | 101 | 13 0673 HHE Ingelesa (HHE) | 16 0954 Ingelesa |
| 3.º | 1 | 102 | 16 0659 Zeinu-mintzaira | 16 0959+ Entzumena eta Hizkuntza+ Zeinu-mintz. 3 |
| 4.º | 1 | 103 | 26 0659 Zeinu-mintzaira (DBH 1-2) | 16 0959+ Entzumena eta Hizkuntza+ Zeinu-mintz. 3 |
| 5.º | 1 | 104 | 16 0959 Entzumena eta Hizkuntza | 16 0959 Entzumena eta Hizkuntza |
| 6.º | 1 | 105 | 26 0959 Entzumena eta Hizkuntza (DBH 1-2) | 16 0959 Entzumena eta Hizkuntza |
| 7.º | 1 | 106 | 13 0959 Entzumena eta Hizkuntza (HHE) | 16 0959 Entzumena eta Hizkuntza |
| 8.º | 1 | 107 | 16 0958 Pedagogia terapeutikoa | 16 0958 Pedagogia terapeutikoa |
| 9.º | 1 | 108 | 26 0958 Pedagogia terapeutikoa (DBH 1-2) | 16 0958 Pedagogia terapeutikoa |
| 10.º | 1 | 109 | 28 0958 Pedagogia terapeutikoa (ZIG) | 16 0958 Pedagogia terapeutikoa |
| 11.º | 1 | 110 | 13 0958 Pedagogia terapeutikoa (HHE) | 16 0958 Pedagogia terapeutikoa |
| 12.º | 1 | 111 | 16 0953 Kontsultorea | 16 0953 Kontsultorea |
| 13.º | 1 | 112 | 16 0956 Gorputz-hezkuntza | 16 0956 Gorputz-hezkuntza |
| 14.º | 1 | 113 | 16 0957 Musika | 16 0957 Musika |
| 15.º | 1 | 114 | 16 0950 Haur Hezkuntza | 16 0950 Haur Hezkuntza |
| 16.º | 1 | 115 | 16 0952 Euskara | 16 0952 Euskara |

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 17.º | 1 | 116 | 16 0955 Frantsesa | 16 0955 Frantsesa |
| 18.º | 1 | 117 | 13 0674 HHE Frantsesa (HHE) | 16 0955 Frantsesa |
| 19.º | 1 | 118 | 16 0951 Lehen Hezkuntza | 16 0951 Lehen Hezkuntza |
| 20.º | 1 | 119 | 13 0675 HHE Matematika (HHE) | 16 0951 Lehen Hezkuntza |
| 21.º | 1 | 120 | 13 0676 HHE Gizarte Zientziak (HHE) | 16 0951 Lehen Hezkuntza |
| 22.º | 1 | 121 | 13 0677 HHE Hasierako Irakaskuntza (HHE) | 16 0951 Lehen Hezkuntza |
| 23.º | 1 | 122 | 16 1080 Hizkuntza Indargarria | 16 1080 Hizkuntza Indargarria |

1.2.– Bigarren Hezkuntza.

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 24.º | 2 | 200 | 20 0102 Frantsesa | 20 0102 Frantsesa |
| 25.º | 2 | 201 | 20 0103 Ingelesa | 20 0103 Ingelesa |
| 26.º | 2 | 202 | 20 0104 Alemana | 20 0104 Alemana |
| 27.º | 2 | 203 | 20 0106 Euskara eta Literatura | 20 0106 Euskara eta Literatura |
| 28.º | 2 | 204 | 20 0124 Geografia eta Historia | 20 0124 Geografia eta Historia |
| 29.º | 2 | 205 | 20 0126 Latina | 20 0126 Latina |
| 30.º | 2 | 206 | 20 0127 Grekoa | 20 0127 Grekoa |
| 31.º | 2 | 207 | 20 0131 Musika | 20 0131 Musika |
| 32.º | 2 | 208 | 20 0132 Filosofia | 20 0132 Filosofia |
| 33.º | 2 | 209 | 20 0133 Italiera | 20 0133 Italiera |
| 34.º | 2 | 210 | 20 0134 Gaztelania eta Literatura | 20 0134 Gaztelania eta Literatura |
| 35.º | 2 | 211 | 20 0146 Kultura Klasikoa | 20 0146 Kultura Klasikoa |
| 36.º | 2 | 212 | 20 0202 Fisika eta Kimika | 20 0202 Fisika eta Kimika |
| 37.º | 2 | 213 | 20 0205 Ekonomia | 20 0205 Ekonomia |
| 38.º | 2 | 214 | 20 0224 Matematika | 20 0224 Matematika |
| 39.º | 2 | 215 | 20 0237 Informatika | 20 0237 Informatika |
| 40.º | 2 | 216 | 20 0239 Marrazketa | 20 0239 Marrazketa |
| 41.º | 2 | 217 | 20 0255 Biologia eta Geologia | 20 0255 Biologia eta Geologia |
| 42.º | 2 | 218 | 20 0256 Hezkuntza Orientabidea | 20 0256 Psikologia eta Pedagogia |
| 43.º | 2 | 219 | 20 0298 Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea | 20 0298 Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea |
| 44.º | 2 | 220 | 20 0327 Gorputz Hezkuntza | 20 0327 Gorputz Hezkuntza |
| 45.º | 2 | 221 | 20 0401 Teknologia | 20 0401 Teknologia |
| 46.º | 2 | 222 | 20 0986 Curriculum Aniztasun Sozioling. | 20 0986 Curriculum Aniztasun Sozioling. |
| 47.º | 2 | 223 | 20 0989 Curriculum Aniztasun Zient.–Teknol. | 20 0989 Curriculum Aniztasun Zient.–Teknol. |
| 48.º | 2 | 224 | 20 1501 Enpresen Administrazioa | 20 1501 Enpresen Administrazioa |
| 49.º | 2 | 225 | 20 1502 Merkataritzako Antolamendua eta Kudeaketa | 20 1502 Merkataritzako Antolamendua eta Kudeaketa |
| 50.º | 2 | 226 | 20 1503 Elikagaien Industriako Prozesuak | 20 1503 Elikagaien Industriako Prozesuak |
| 51.º | 2 | 227 | 20 1504 Nekazaritzako Ekoizpen Prozesuak | 20 1504 Nekazaritzako Ekoizpen Prozesuak |
| 52.º | 2 | 228 | 20 1505 Arte Grafikoetako Prozesuak eta Produktuak | 20 1505 Arte Grafikoetako Prozesuak eta Produktuak |
| 53.º | 2 | 229 | 20 1506 Ibilgailuen Mantentze Lanetako Antolam. Prozesuak | 20 1506 Ibilgailuen Mantentze Lanetako Antolam. Prozesuak |
| 54.º | 2 | 230 | 20 1507 Eraikuntza Zibilak eta Etxegintza | 20 1507 Eraikuntza Zibilak eta Etxegintza |
| 55.º | 2 | 231 | 20 1508 Fabrikazio Mekanikoko Antolamendua eta Proiektuak | 20 1508 Fabrikazio Mekanikoko Antolamendua eta Proiektuak |
| 56.º | 2 | 232 | 20 1509 Energia Sistemetako Antolamendua eta Proiektuak | 20 1509 Energia Sistemetako Antolamendua eta Proiektuak |
| 57.º | 2 | 233 | 20 1510 Sistema Elektroteknikо eta Automatikoak | 20 1510 Sistema Elektrotekniko eta Automatikoak |
| 58.º | 2 | 234 | 20 1511 Sistema Elektronikoak | 20 1511 Sistema Elektronikoak |
| 59.º | 2 | 235 | 20 1512 Ostalaritza eta Turismoa | 20 1512 Ostalaritza eta Turismoa |
| 60.º | 2 | 236 | 20 1513 Komunikazioaren Prozesuak eta Komunikabideak | 20 1513 Komunikazioaren Prozesuak eta Komunikabideak |
| 61.º | 2 | 237 | 20 1514 Zurgintzako eta Altzarigintzako Prozesuak eta Produktuak | 20 1514 Zurgintzako eta Altzarigintzako Prozesuak eta Produktuak |

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 62.º | 2 | 297 | 20 1515 Nabigazioa eta Itsas-instalazioak | 20 1515 Nabigazioa eta Itsas-instalazioak |
| 63.º | 2 | 238 | 20 1516 Ehun, Jantzi eta Larru Prozesuak eta Produktuak | 20 1516 Ehun, Jantzi eta Larru Prozesuak eta Produktuak |
| 64.º | 2 | 239 | 20 1517 Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak | 20 1517 Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak |
| 65.º | 2 | 240 | 20 1518 Analisi eta Kimika Industriala | 20 1518 Analisi eta Kimika Industriala |
| 66.º | 2 | 241 | 20 1519 Prozesu Sanitarioak | 20 1519 Prozesu Sanitarioak |
| 67.º | 2 | 242 | 20 1520 Diagnostiko Klinikoko Prozes. eta Produktu Ortop. | 20 1520 Diagnostiko Klinikoko Prozes. eta Produktu Ortop. |
| 68.º | 2 | 243 | 20 1521 Gizarte Esku-hartzea | 20 1521 Gizarte Esku-hartzea |
| 69.º | 2 | 299 | 20 1522 Akuikultura Prozesuak | 20 1522 Akuikultura Prozesuak |
| 70.º | 2 | 298 | 20 1559 Makinak, zerbitzuak eta produkzioa | 20 1559 Makinak, zerbitzuak eta produkzioa |
| 71.º | 2 | 399 | 20 1570 Hazkuntza eta laborantzako instalazio eta ekipoak | 20 1570 Hazkuntza eta laborantzako instalazio eta ekipoak |
| 72.º | 2 | 244 | 20 1581 HHE Komunik. Arloa Gaztelera | 20 1581 HHE Komunik. Arloa Gaztelera |
| 73.º | 2 | 245 | 20 1582 HHE Komunik. Arloa Ingelesa | 20 1582 HHE Komunik. Arloa Ingelesa |
| 74.º | 2 | 246 | 20 1583 HHE Komunik. Arloa Euskara | 20 1583 HHE Komunik. Arloa Euskara |
| 75.º | 2 | 247 | 20 1584 HHE Komunik. Arloa Frantsesa | 20 1584 HHE Komunik. Arloa Frantsesa |
| 76.º | 2 | 248 | 20 1585 HHE Arlo Zient.–Teknol. | 20 1585 HHE Arlo Zient.–Teknol. |
| 77.º | 2 | 249 | 20 1586 HHE Gizarte Ezagueraren Arloa | 20 1586 HHE Gizarte Ezagueraren Arloa |
| 78.º | 2 | 250 | 20 1900 Filosofia Ingelesez | 20 0132+ Filosofia+EAI1 edo EAI3 |
| 79.º | 2 | 251 | 20 1901 Kultura Klasikoa Ingelesez | 20 0146+ Kultura Klasikoa+ EAI1 edo EAI3 |
| 80.º | 2 | 252 | 20 1902 Geografia eta Historia Ingelesez | 20 0124+ Geografia eta Historia+ EAI1 edo EAI3 |
| 81.º | 2 | 253 | 20 1903 Matematika Ingelesez | 20 0224+ Matematika+ EAI1 edo EAI3 |
| 82.º | 2 | 254 | 20 1904 Biologia eta Geologia Ingelesez | 20 0255+ Biologia eta Geologia+ EAI1 edo EAI3 |
| 83.º | 2 | 255 | 20 1905 Fisika eta Kimika Ingelesez | 20 0202+ Fisika eta Kimika+EAI1 edo EAI3 |
| 84.º | 2 | 256 | 20 1906 Marrazketa Ingelesez | 20 0239+ Marrazketa+ EAI1 edo EAI3 |
| 85.º | 2 | 257 | 20 1907 Musika Ingelesez | 20 0131+ Musika+ EAI1 edo EAI3 |
| 86.º | 2 | 258 | 20 1908 Gorputz Hezkuntza Ingelesez | 20 0327+ Gorputz Hezkuntza + EAI1 edo EAI3 |
| 87.º | 2 | 259 | 20 1909 Teknologia Ingelesez | 20 0401+ Teknologia+ EAI1 edo EAI3 |
| 88.º | 2 | 260 | 20 1910 Informatika Ingelesez | 20 0237+ Informatika+ EAI1 edo EAI3 |
| 89.º | 2 | 261 | 20 1911 Ekonomia Ingelesez | 20 0205+ Ekonomia+ EAI1 edo EAI3 |
| 90.º | 2 | 262 | 20 1950 Filosofia Frantsesez | 20 0132+ Filosofia+ EAI2 edo EAI3 |
| 91.º | 2 | 263 | 20 1951 Kultura Klasikoa Frantsesez | 20 0146+ Kultura Klasikoa + EAI2 edo EAI3 |
| 92.º | 2 | 264 | 20 1952 Geografia eta Historia Frantsesez | 20 0124+ Geografia eta Historia + EAI2 edo EAI3 |
| 93.º | 2 | 265 | 20 1953 Matematika Frantsesez | 20 0224+ Matematika + EAI2 edo EAI3 |
| 94.º | 2 | 266 | 20 1954 Biologia eta Geologia Frantsesez | 20 0255+ Biologia eta Geologia + EAI2 edo EAI3 |
| 95.º | 2 | 267 | 20 1955 Fisika eta Kimika Frantsesez | 20 0202+ Fisika eta Kimika + EAI2 edo EAI3 |
| 96.º | 2 | 268 | 20 1956 Marrazketa Frantsesez | 20 0239+ Marrazketa + EAI2 edo EAI3 |
| 97.º | 2 | 269 | 20 1957 Musika Frantsesez | 20 0131+ Musika+ EAI2 edo EAI3 |
| 98.º | 2 | 270 | 20 1958 Gorputz Hezkuntza Frantsesez | 20 0327+ Gorputz Hezkuntza + EAI2 edo EAI3 |
| 99.º | 2 | 271 | 20 1959 Teknologia Frantsesez | 20 0401+ Teknologia + EAI2 edo EAI3 |
| 100.º | 2 | 272 | 20 1960 Informatika Frantsesez | 20 0237+ Informatika + EAI2 edo EAI3 |
| 101.º | 2 | 273 | 20 1961 Ekonomia Frantsesez | 20 0205+ Ekonomia+ EAI2 edo EAI3 |
| 102.º | 2 | 274 | 20 1970 Hizkuntza Indartzeko Irakaslea | 20 1970 Hizkuntza Indartzea |
| 103.º | 2 | 275 | 26 0954 Ingelesa (DBH 1-2) | 20 0103 Ingelesa |
| 104.º | 2 | 276 | 26 0955 Frantsesa (DBH 1-2) | 20 0102 Frantsesa |
| 105.º | 2 | 277 | 26 0979 Alemana (DBH 1-2) | 20 0104 Alemana |
| 106.º | 2 | 278 | 26 0956 Gorputz Hezkuntza (DBH 1-2) | 20 0327 Gorputz Hezkuntza |
| 107.º | 2 | 279 | 26 0957 Musika (DBH 1-2) | 20 0131 Musika |
| 108.º | 2 | 280 | 26 0962 Gaztelania eta Literatura (DBH 1-2) | 20 0134 Gaztelania eta Literatura |
| 109.º | 2 | 281 | 26 0963 Euskara (DBH 1-2) | 20 0106 Euskara eta Literatura |
| 110.º | 2 | 282 | 26 0964 Matematika (DBH 1-2) | 20 0224 Matematika |
| 111.º | 2 | 283 | 26 0965 Natur Zientziak (DBH 1-2) | 20 0202 Fisika eta Kimika<br>20 0255 Biologia eta Geologia |
| 112.º | 2 | 284 | 26 0966 Gizarte Zientziak Geogr. Hist. (DBH 1-2) | 20 0124 Geografia eta Historia |
| 113.º | 2 | 285 | 26 0967 Plastika eta Ikus-Hezkuntza (DBH 1-2) | 20 0239 Marrazketa |
| 114.º | 2 | 286 | 26 0968 Teknologia (DBH 1-2) | 20 0401 Teknologia |

1.3.– Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 115.º | 3 | 300 | 20 1541 Administrazio Kudeaketako Prozesuak | 20 1541 Administrazio Kudeaketako Prozesuak |
| 116.º | 3 | 301 | 20 1542 Merkataritza Prozesuak | 20 1542 Merkataritza Prozesuak |
| 117.º | 3 | 302 | 20 1543 Elikagaiak Egiteko Operazio eta Ekipoak | 20 1543 Elikagaiak Egiteko Operazio eta Ekipoak |
| 118.º | 3 | 303 | 20 1544 Nekazaritzarako Produkzio Lanak eta Ekipoak | 20 1544 Nekazaritzarako Produkzio Lanak eta Ekipoak |
| 119.º | 3 | 304 | 20 1545 Arte Grafikoetako Produkzioa | 20 1545 Arte Grafikoetako Produkzioa |
| 120.º | 3 | 305 | 20 1546 Ibilgailuen Mantentze Lanak | 20 1546 Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| 121.º | 3 | 306 | 20 1547 Eraikuntza Proiektuen Bulegoa | 20 1547 Eraikuntza Proiektuen Bulegoa |
| 122.º | 3 | 307 | 20 1548 Fabrikazio Mekanikoko Proiektuen Bulegoa | 20 1548 Fabrikazio Mekanikoko Proiektuen Bulegoa |
| 123.º | 3 | 308 | 20 1549 Bero eta Fluido Ekipoen Instalaz. eta Manten. Lanak | 20 1549 Bero eta Fluido Ekipoen Instalaz. eta Manten. Lanak |
| 124.º | 3 | 309 | 20 1550 Instalazio Elektroteknikoak | 20 1550 Instalazio Elektroteknikoak |
| 125.º | 3 | 310 | 20 1551 Ekipo Elektronikoak | 20 1551 Ekipo Elektronikoak |
| 126.º | 3 | 311 | 20 1552 Sukaldaritza eta Gozogintza | 20 1552 Sukaldaritza eta Gozogintza |
| 127.º | 3 | 312 | 20 1553 Jatetxe Arloko Zerbitzuak | 20 1553 Jatetxe Arloko Zerbitzuak |
| 128.º | 3 | 313 | 20 1554 Irudi eta Soinuko Teknikak eta Prozedurak | 20 1554 Irudi eta Soinuko Teknikak eta Prozedurak |
| 129.º | 3 | 314 | 20 1555 Informatika Sistemak eta Aplikazioak | 20 1555 Informatika Sistemak eta Aplikazioak |
| 130.º | 3 | 315 | 20 1556 Laborategia | 20 1556 Laborategia |
| 131.º | 3 | 316 | 20 1557 Prozesu Lanak | 20 1557 Prozesu Lanak |
| 132.º | 3 | 317 | 20 1558 Arotzeria, Altzarigintza eta Instalazioa | 20 1558 Arotzeria, Altzarigintza eta Instalazioa |
| 133.º | 3 | 318 | 20 1560 Makinak Mekanizatzea eta Mantentze Lanak | 20 1560 Makinak Mekanizatzea eta Mantentze Lanak |
| 134.º | 3 | 319 | 20 1561 Soldadura | 20 1561 Soldadura |
| 135.º | 3 | 320 | 20 1562 Patroigintza eta Jantzigintza | 20 1562 Patroigintza eta Jantzigintza |
| 136.º | 3 | 321 | 20 1563 Estetika | 20 1563 Estetika |
| 137.º | 3 | 322 | 20 1564 Ile Apainketa | 20 1564 Ile Apainketa |
| 138.º | 3 | 323 | 20 1566 Diagnostiko Klinikoko Prozedurak eta Prod. Ortop. | 20 1566 Diagnostiko Klinikoko Prozedurak eta Prod. Ortop. |
| 139.º | 3 | 324 | 20 1567 Osasun eta Laguntzako Prozedurak | 20 1567 Osasun eta Laguntzako Prozedurak |
| 140.º | 3 | 325 | 20 1568 Gizartearentzako Zerbitzuak | 20 1568 Gizartearentzako Zerbitzuak |
| 141.º | 3 | 326 | 28 2541 ZIG (admin. kudeak. proz.) | 20 1541 Administrazio Kudeaketako Prozesuak |
| 142.º | 3 | 327 | 28 2542 ZIG (merkataritza prozesuak) | 20 1542 Merkataritza Prozesuak |
| 143.º | 3 | 328 | 28 2543 ZIG (elikagaiak egiteko op. ek.) | 20 1543 Elikagaiak Egiteko Operazio eta Ekipoak |
| 144.º | 3 | 329 | 28 2544 ZIG (nekaz. prod. lan. ekip.) | 20 1544 Nekazaritzako Produkzio Lanak eta Ekipoak |
| 145.º | 3 | 330 | 28 2545 ZIG (arte grafikoet. produk.) | 20 1545 Arte Grafikoetako Produkzioa |
| 146.º | 3 | 331 | 28 2546 ZIG (ibilgailuen manten. lanak) | 20 1546 Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| 147.º | 3 | 332 | 28 2547 ZIG (eraikuntza proiekt. bulegoa) | 20 1547 Eraikuntza Proiektuen Bulegoa |
| 148.º | 3 | 333 | 28 2548 ZIG (fabrikazio mekanik. proiekt. bulegoa) | 20 1548 Fabrikazio Mekanikoko Proiektuen Bulegoa |
| 149.º | 3 | 334 | 28 2549 ZIG (bero eta fluido ekip. inst. manten. lanak) | 20 1549 Bero eta Fluido Ekipoen Instalaz. Eta Manten. Lanak |
| 150.º | 3 | 335 | 28 2550 ZIG (inst. elektrot.) | 20 1550 Instalazio Elektroteknikoak |
| 151.º | 3 | 336 | 28 2551 ZIG (ekipo elektronikoak) | 20 1551 Ekipo Elektronikoak |
| 152.º | 3 | 337 | 28 2552 ZIG (sukaldaritza eta gozog.) | 20 1552 Sukaldaritza eta Gozogintza |
| 153.º | 3 | 338 | 28 2553 ZIG (jatetxe arloko zerbitzuak) | 20 1553 Jatetxe Arloko Zerbitzuak |
| 154.º | 3 | 339 | 28 2554 ZIG (irudi eta soinuko teknik. proz.) | 20 1554 Irudi eta Soinuko Teknikak eta Prozedurak |
| 155.º | 3 | 340 | 28 2555 ZIG (informatika sistemak eta aplikazioak) | 20 1555 Informatika Sistemak eta Aplikazioak |
| 156.º | 3 | 341 | 28 2556 ZIG (laborategia) | 20 1556 Laborategia |
| 157.º | 3 | 342 | 28 2557 ZIG (prozesu lanak) | 20 1557 Prozesu Lanak |
| 158.º | 3 | 343 | 28 2558 ZIG (arotz. altzar. inst.) | 20 1558 Arotzeria, Altzarigintza eta Instalazioa |
| 159.º | 3 | 344 | 28 2560 ZIG (makinak mekaniz. manten. lanak) | 20 1560 Makinak Mekanizatzea eta Mantentze Lanak |
| 160.º | 3 | 345 | 28 2561 ZIG (soldadura) | 20 1561 Soldadura |
| 161.º | 3 | 346 | 28 2562 ZIG (patroigintza eta jantzigintza) | 20 1562 Patroigintza eta Jantzigintza |
| 162.º | 3 | 347 | 28 2563 ZIG (estetika) | 20 1563 Estetika |
| 163.º | 3 | 348 | 28 2564 ZIG (ile apainketa) | 20 1564 Ile Apainketa |

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 164.º | 3 | 349 | 28 2566 ZIG (diagnostiko klin. proz. prod. ortop.) | 20 1566 Diagnostiko Klinikoko Prozedurak eta Prod. Ortop. |
| 165.º | 3 | 350 | 28 2567 ZIG (osas. laguntz. prozed.) | 20 1567 Osasun eta Laguntzako Prozedurak |
| 166.º | 3 | 351 | 28 2568 ZIG (gizart. zerb.) | 20 1568 Gizartearentzako Zerbitzuak |

1.4.– Hizkuntza Eskola Ofizialak.

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 167.º | 4 | 287 | 41 0750 Ingelesa (HEO) | 41 0750 HEO Ingelesa |
| 168.º | 4 | 288 | 41 0751 Frantsesa (HEO) | 41 0751 HEO Frantsesa |
| 169.º | 4 | 289 | 41 0752 Alemana (HEO) | 41 0752 HEO Alemana |
| 170.º | 4 | 290 | 41 0753 Euskara (HEO) | 41 0753 HEO Euskara |
| 171.º | 4 | 291 | 41 0754 Errusiera (HEO) | 41 0754 HEO Errusiera |
| 172.º | 4 | 292 | 41 0755 Gaztelania Atzerritarrentzat (HEO) | 41 0755 HEO Gaztelania |
| 173.º | 4 | 293 | 41 1756 Italiera (HEO) | 41 1756 HEO Italiera |
| 174.º | 4 | 294 | 41 1757 Portugalera (HEO) | 41 1757 HEO Portugalera |

1.5.– Arte Irakaskuntza.

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 175.º | 6 | 601 | 44 1607 Marrazketa Artistikoa eta Kolorea | 44 1607 Marrazketa Artistikoa eta Kolorea |
| 176.º | 6 | 608 | 44 1608 Marrazketa teknikoa | 44 1608 Marrazketa Teknikoa |
| 177.º | 6 | 602 | 44 1609 Barne Diseinua | 44 1609 Barne Diseinua |
| 178.º | 6 | 603 | 44 1612 Diseinu Grafikoa | 44 1612 Diseinu Grafikoa |
| 179.º | 6 | 604 | 44 1616 Artearen Historia | 44 1702 Artearen Historia |
| 180.º | 6 | 605 | 44 1620 Materialak eta teknologia: Diseinua | 44 1620 Materialak eta Teknologia: Diseinua |
| 181.º | 6 | 609 | 44 1621 Ikus-entzunezko Baliabideak | 44 1621 Ikus-entzunezko Baliabideak |
| 182.º | 6 | 606 | 44 1622 Baliabide Informatikoak | 44 1627 Baliabide Informatikoak. Diseinu Grafikoa<br>44 1628 Baliabide Informatikoak. Barne Diseinua |
| 183.º | 6 | 610 | 44 1623 Industria Antolaketa eta Legedia | 44 1623 Industria Antolaketa eta Legedia |
| 184.º | 6 | 611 | 44 1625 Bolumena | 44 1625 Bolumena |
| 185.º | 6 | 607 | 44 1729 Argazkigintza | 44 1729 Argazkigintza |

1.6.– Musika Irakaskuntza.

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 186.º | 7 | 700 | 42 0133 Italiera | 20 0133 Italiera |
| 187.º | 7 | 701 | 42 0801 Pianoa | 42 0801 Pianoa |
| 188.º | 7 | 702 | 42 0802 Biolina | 42 0802 Biolina |
| 189.º | 7 | 703 | 42 0803 Biolontxeloa | 42 0803 Biolontxeloa |
| 190.º | 7 | 704 | 42 0804 Harpa | 42 0804 Harpa |
| 191.º | 7 | 705 | 42 0805 Gitarra | 42 0805 Gitarra |
| 192.º | 7 | 706 | 42 0807 Biola | 42 0807 Biola |
| 193.º | 7 | 707 | 42 0808 Kontrabaxua | 42 0808 Kontrabaxua |
| 194.º | 7 | 708 | 42 0810 Oboea | 42 0810 Oboea |

| Ord. | Tald. | Kod. | Espezialitatea | Ordezkogaien zerrenda |
|---|---|---|---|---|
| 195.º | 7 | 709 | 42 0811 Klarinetea | 42 0811 Klarinetea |
| 196.º | 7 | 710 | 42 0812 Fagota | 42 0812 Fagota |
| 197.º | 7 | 711 | 42 0813 Saxofoia | 42 0813 Saxofoia |
| 198.º | 7 | 712 | 42 0814 Tronpa | 42 0814 Tronpa |
| 199.º | 7 | 713 | 42 0815 Tronpeta | 42 0815 Tronpeta |
| 200.º | 7 | 714 | 42 0816 Tronboia | 42 0816 Tronboia |
| 201.º | 7 | 715 | 42 0817 Tuba | 42 0817 Tuba |
| 202.º | 7 | 716 | 42 0818 Txistua | 42 0818 Txistua |
| 203.º | 7 | 717 | 42 0819 Kantua | 42 0819 Kantua |
| 204.º | 7 | 718 | 42 0829 Eskusoinua | 42 0829 Eskusoinua |
| 205.º | 7 | 719 | 42 0831 Organoa | 42 0831 Organoa |
| 206.º | 7 | 720 | 42 0851 Perkusioa | 42 0851 Perkusioa |
| 207.º | 7 | 721 | 42 0853 Lutheria | 42 0853 Lutheria |
| 208.º | 7 | 722 | 42 0858 Musikaren Historia | 42 0858 Musikaren Historia |
| 209.º | 7 | 723 | 42 0875 Gitarra Elektrikoa | 42 0875 Gitarra Elektrikoa |
| 210.º | 7 | 734 | 42 0879 Zi-instrumentuak | 42 0879 Zi-instrumentuak |
| 211.º | 7 | 724 | 42 0880 Pianista Laguntzailea | 42 0801 Pianoa |
| 212.º | 7 | 725 | 42 0881 Musika Hizkuntza | 42 0881 Musika Hizkuntza |
| 213.º | 7 | 726 | 42 0883 Korua | 42 0883 Korua (logse) |
| 214.º | 7 | 727 | 42 0896 Klabezina | 42 0896 Klabezina |
| 215.º | 7 | 728 | 42 0911 Zango Biola | 42 0911 Zango Biola |
| 216.º | 7 | 729 | 42 0912 Zeharkako Txirula | 42 0912 Zeharkako Txirula |
| 217.º | 7 | 730 | 42 0913 Moko Flauta | 42 0913 Moko Flauta |
| 218.º | 7 | 735 | 42 0914 Errenazimentuko eta Barrokoko Hari Pultsatua | 42 0914 Errenazimentuko eta Barrokoko Hari Pultsatua |
| 219.º | 7 | 731 | 42 0917 Konposizioaren Oinarriak | 42 0917 Konposizioaren Oinarriak |
| 220.º | 7 | 732 | 42 0922 Orkestra | 42 0922 Orkestra |
| 221.º | 7 | 733 | 42 1802 Baxu elektrikoa | 42 1802 Baxu elektrikoa |

2.– Hizkuntza-eskakizunak.

2.1.– 1. Hizkuntza-eskakizuna.

2.2.– 2. Hizkuntza-eskakizuna.

3.– Derrigorrezkotasun-data.

3.1.– Betea.

3.2.– Atzeratua.

4.– Lanaldi motak.

4.1.– Osoa.

| | Ordu kopurua |
|---|---|
| Maisu-maistrak | 30 edo gehiago |
| Gainerako kidegoak | 17 edo gehiago |

4.2.– Lanaldiaren bi heren.

| | Ordu kopurua |
|---|---|
| Maisu-maistrak | 20 eta 29 artean |
| Gainerako kidegoak | 12 eta 16 artean |

4.3.– Lanaldi erdia.

| | Ordu kopurua |
|---|---|
| Maisu-maistrak | 15 eta 19 artean |
| Gainerako kidegoak | 9 eta 11 artean |

4.4.– Lanaldi herena.

| | Ordu kopurua |
|---|---|
| Maisu-maistrak | 10 eta 14 artean |
| Gainerako kidegoak | 6 eta 8 artean |

5.– Ibiltaritza.

5.1.– Ez-ibiltaria.

5.2.– Ibiltaria.

6.– Bereziak.

6.1.– Ez-berezia.

6.2.– Berezia.»

Bosgarren artikulua.– Hirugarren Xedapen Gehigarria eransten zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduari. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«Hirugarrena.– Parte hartzen duten pertsonen hizkuntza-eskubideak.

Agindu honetan araututako esleipen-prozesuan parte hartzen duten pertsonek, hezkuntza gaietako eskumena duen sailarekin dituzten harremanetan, euskara eta gaztelania, ahoz nahiz idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 26a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.